



Tutoretza plana

Helburuak

Tutoretzaren bitartez lagundu nahi ditugu gure ikasleak **bizitza-proiektua** eraikitzeko beharko dituzten **gaitasunak** eskuratzen. Horretarako lana egiten dugu:

ikasleekin, bai taldean bai banaka

- taldean eta ikastetxean integratzeko, lankidetzeta, elkarren arteko laguntza eta besteeikiko errespetua sustatuz
- ikasketa prozesua jarraitzeko eta, behar izanez gero, laguntza bideratzeko
- erabakiak hartzeko prozesuan laguntza emateko

irakasleekin

- ikasleei buruzko informazioa partekatzeko, zailtasunak aurreikusiz.
- ikasleen beharrak aztertzeko eta erantzun koordinatuak proposatzeko
- ikasleen jarraipena egiteko eta ebaluazioa koordinatzeko

familiekin eta beste eragileekin

- ikastetxearen eta etaparen informazioa emateko
- haiengandik familia inguruko informazioa jasotzeko
- ikaslearen hezkuntza prozesuaren berri emateko eta bide beretik lan egiteko
- une erabakigarrietan aholku emateko

Tutoretza saioak:

Bigarren Hezkuntzako beste arlo guztiekin batera, ikasleen oinarrizko gaitasunen garapena bultzatzen dugu tutoretzan:

- Nork bere burua ezagutzea, onartzea eta zaintzea, bai tutorearekin bai lankideekin norberaren jokaera eta horren ondorioei buruz gogoeta eginez.
- Jolasean eta lanean errespetuan oinarritutako harremanak izatea, komunikaziorako trebetasunak garatuz.
- Eskolako lanetan nahiz eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzea, proposamenak luzatuz, arauak errespetatuz eta erabakietan inplikatur.
- Arrisku portaerak identifikatzea eta osasunerako kaltegarriak izan daitezken erabakietan kontuan hartzea.
- Gizarte bazterkeria gertaerei buruz norbere ikuskera azaltzea, kalteak sortzen dituzten gizarte egoeren aurrean kritiko agertuz eta justizia, berdintasuna, bakea eta elkartasuna bezalako balioei garrantzia emanez.
- Ikaskuntza prozesua jarraian begiratzea eta deskribatzea emaitzak aztertuz eta, behar denean, hobetzeko aldaketak proposatuz.
- Etorkizuneko proiektu pertsonala aurreikustea eta erabakiak hartzea, norberaren ezagutza zein errealitate soziolaborala kontuan hartuz.

Ikasleekin lantzen diren eduki-multzoak:

Pertsona- eta gizarte-garapena:

- Norberaren ezagutza, onarpena eta zaintza
- Elkarbizitza
 - Talde antolatzea
 - Gatazkak bideratzea
 - Tratu onak
 - Sare sozialak
 - Giza eskubideak
 - Berdintasunean desberdinak

Ikasten ikastea:

- Antolamendua eta planifikazioa
- Errendimendua eta emaitzak

Erabakiak hartzea:

- Interesak, balioak, gaitasunak aztertzea.
- Informazioa bilatzea: ikasketak, lanbideak, aisia...
- Proiektua definitzea erabakiak hartuz.

Eduki multzoak	DBH 1	DBH2	DBH3	DBH4
<p>Pertsona eta gizarte-garapena</p> <p>Norberaren ezagutza eta zaintza</p> <p>Elkarbizitza</p>	<p>Hezkidetza: Elkar-erantzunkizunak</p> <p>Kerik gabeko gelak programa</p> <p>Gelako ordezkaria AJA</p> <p>Gatazkak bideratzea</p> <p>Tratu txarren prebentzioa</p> <p>Irteerak eta jaialdia</p>	<p>Hezkidetza: Sexualitatea</p> <p>Kerik gabeko gelak programa</p> <p>Alkohol tailerra</p> <p>Gelako ordezkaria AJA</p> <p>Gatazkak bideratzea</p> <p>Tratu txarren prebentzioa</p> <p>Sukarrietako egonaldia</p>	<p>Hezkidetza: Genero indarkeria</p> <p>Segurtasuna sare sozialetan</p> <p>Gelako ordezkaria AJA</p> <p>Gatazkak bideratzea</p> <p>Tratu txarren prebentzioa</p> <p>Irteerak eta jaialdia</p>	<p>Hezkidetza: Orientazio ez sexista</p> <p>Drogen prebentzioa</p> <p>Dependentzia emozionala</p> <p>Gelako ordezkaria AJA</p> <p>Gatazkak bideratzea</p> <p>Tratu txarren prebentzioa</p> <p>Jaialdia</p> <p>Ikasbidaia</p>
Ikasten ikastea	<p>Talde kooperatiboak: Talde-kohesioa</p> <p>Antolamendua eta planifikazioa</p> <p>Gelako eta banakako emaitzak</p>	<p>Talde kooperatiboak: Talde-kohesioa</p> <p>Antolamendua eta planifikazioa</p> <p>Gelako eta banakako emaitzak</p>	<p>Talde kohesioa</p> <p>Antolamendua eta planifikazioa</p> <p>Gelako errendimendua eta banakako emaitzak</p>	<p>Talde kohesioa</p> <p>Antolamendua eta planifikazioa</p> <p>Gelako errendimendua eta banakako emaitzak</p>
Erabakiak	Aukerakoak	Aukerakoak	Aukerakoak eta ibilbideak	Orientazio programa:

hartzea	Aisia	Interesak Balioak	Ikasketa desberdinen egitura	Norberaren interesak, gaitasunak Hezkuntza sistema eta lanbideak Banakako elkarrizketak
----------------	-------	----------------------	------------------------------------	--

Plangintza

Ikasleekin

Tutoretza saioen oinarrizko **programazioa** ikasleekin adosten dugu, haien proposamenak aztertu ondoren. Hala ere, beti egongo dira aurreikusi gabeko gaiak eta asteroko koordinazio bileretan zehaztuko ditugu horiek.

Taldearekin lana egiteaz gain, banakako elkarrizketak ere oso garrantzitsuak dira zenbait unetan.

Irakasleekin

Ikasturtean zehar tutoreak taldeko irakasleekin koordinazio bilerak izaten ditu, bai taldearen eta bai ikasle bakoitzaren jarraipena egiteko: hasierako bilera, aurrebaluazio eta ebaluazio bilerak.

Orientatzailearekin

Tutoreek asteroko bilerak izaten dituzte orientatzailearekin, tutoretza lana koordinatzeko.

Familiartekoekin

Gurasoekin, edo legezko arduradunekin, zenbait bilera izaten ditu tutoreak kurtsoan zehar, elkarrekin lan egiteko

Beste eragilekin

Orientatzaileak tutorearen laguntzarekin koordinazio bilerak izaten ditu zenbait gizarte eta osasun eragileekin kasu berezietan eta beharren arabera: udaleko eta foru aldundiko gizarte zerbitzuak, psikologoak, hezitzaileak, aholkulariak...

Tutoretza Planaren balorazioa

Asteroko koordinazio-bileretan tutoretza planaren jarraipena egingo dute tutoreek orientatzailearekin batera, beharrezkoak ikusten diren aldaketak adostuz.

Tutoretza plana baloratzeko erabiliko dira ondorengo ebaluazio irizpideak:

- helburuen lorpen maila
- ikasleei proposatutako edukien eta jardueren egokitasuna
- hiru zeregin eremuetan (ikasleak, irakasleak eta familiak) ekintzen egokitasuna
- ikasleen gaitasunen balorazioa